

Uhin berri. Juan San Martin

Zeruko Argia, 360. zk., 1970-01-25: 6.

(Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A., Izarra Irarkola, 1969, 177 orr., 150 pezeta)

Poesi sorta trinkoa hauxe.

Poesi gaztea da, ta gazteak, egiazkoa danean, zaharrak baiño ezpal gutxiago izaten du; gurea bezelako erri zaharreko gazteak ere bai, dirudienez.

Noski, Juan San Martinek ere izan du begia.

Bilduma onetan tokia arkitzeko bi ari jarri ditu: bata, kronolojiko; olerkariak 1930-tik geroz jaioak izatea ta 1964 ingurutik asi ta onuntz ezagutu arazi diran lanak izatea, ta bestea, poesi hau era-berrikoa izatea, bai egin-bidean eta baita protesta-giroari dagoakionean ere.

Ta gaurko olerkari gazteetatik 25-ek baldikuntza ohiek betetzea ez da gutxi.

Orrelako aukera ziurtasun osoan egitea zaila izaten da.

Iñork ez du objetibidadearen maixu-biderik. San Martin-ek ere behar ba da egingo zituan utsak. Bateren bat berak aitortzen-edo du: bere asmoetan "poesia soila"ri eman dio tokia; abestiari ez; abesten dan poesia ez ote da poesia? ta ez ote da protesta ta ez ote da gaztea?; behar ba da Lourdes Iriondo ta Benito Lertxundik ere sorta onetan egon behar luteke. "Ez dok amairu"ko abeslari gehienak berak sortuak diralako.

Nola nahi, Euskalerriko protesta-giroa ementxe dago preso; nor naik begira dezake.

Bilduma hau egin duana buruak beste asmo bat ere izandu du: ahalegia, olerkari hoietako batzuek ez omen dute beñere liburu bat argitaratzeko biderik izan; elkar bilduta egindako hauxe osatu dute; ala, bidez bakarka egiteko gai direla erakutsi ahal izan dute.

Rikardo Arregi zanak ere zirikatu zuan argitaratzaileen piztizulo hau.

Diru-irabaztaille edo erriko lankide diran erakusteko aukera ba dute; bietatik behar da, ta neurrizkoak ondo daude; baiña aitzaki onekin hura egiten ba dute, gure erriak jakingo du; gure olerkarien lanak liburuz jantzi gabe, larru gorrik, ez ditezela geratu.

Edozeiñek ba du aukera bat egiteko eskubidea, ta neronek ere egin dut bilduma onetan gogoko zaidanaren bereizte bat.

Egi beldurgea artez oso egoki esaten dutenak ba dira bilduma onetan, eta nere gogoz Gabriel Aresti (izenik gabeko olerkia), Julian Lekuona ("Hiltzaile bat bezela" ta "Eliza Pobrea"), Xabier Lete ("Bide ezkutua"), Daniel Landart ("Arratseko otoitza") ta emakume bat: Amaya Lasa (izen gabeko olerki trinkoa) dira maixu.

Ba dira, noski, beste sakonak ere: Jose Antonio Arze, Jose Azurmendi, Martin Garin, Gixan Alfaro (naiz eta rimari lotuegia egon), Beñat Sarasola (imajinazio aberatsez ornitua gaiñera), Jose Angel Irigaray, Mikel A. Intxausti (au ere imajinazioz

nabarmena), Jose Maria Agirre (metroari lotuegi iruditzen ba zait ere), Ramón Saizarbitoria ta Ibon Sarasola.

Hau berezkeri bat besterik ez da, noski.

Beste zerbait erantzi nahi nioke argitxo oneri: giro-berriko 25 olerkari gazte ohietatik 2 emakumeak dirala: Amaya Lasa ta Patxika Emarruzpe; 6 olerkari Bidasoz aruntzakoak dirala; ta 7 apaiz-praillak eta 2 izatez utzi berriak (25-etik 9 Seminariotik pasiak, beraz).